

AKADEMIAREN ALBISTEAK

Albiste hauek bigarren eta hirugarren hiruhilekoei buruzkoak dira. Izan ere, aurretiazko aldizkari arruntak, hamargarrenak alegia, ekaineko data du eta horrek jasotzen ditu urtarrilaren 19an “*Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko euskal legea*” izeneko jardunaldiaren barruan egindako hitzaldiak.

Aipatu epealdi horretan, zuzendaritzako batzak bilerak egin ditu ekainaren 13an eta irailaren 25ean. Hori gorabehera, hainbat bilera izan dituzte batzako kide batzuek, eguneroko arazoei konponbidea eman ahal izateko.

AVD-ZEAren kultur ibilbideaz denaz bezainbatean, zenbait ekitaldi burutu dira, besteak beste, hurrengoak:

1.- Maiatzaren 4an, arratsaldean, Erregistratzaileen Elkargoko Egoitzaren Ekitaldi Aretoan, mahai-ingurua egin zen “Foru-saka” eguneratzeko ustezko proposamenei buruz. Erregistratzaileen elkargoak doan laga zuen horretarako aretoa, eta mahaikide izan zen bertan gure lehendakaria, Adrian Celaya jauna. Parte hartu zuten, orobat, gai horretako beste aditu batzuek, hala nola, Ángel Rodrigo Hidalgo jabetza-erregistratzaile jaunak; Juan Ramón Manzano notario jaunak; Lorenzo Goikoetxea jaunak, Deustuko Unibertsitateko irakasleak; eta Gonzalo Vidorreta abokatu jaunak. Horiek guztiek oinarritzko ideiak azaldu zituzten, eta ideia horiek aintzakotzat hartu beharrekoak dira, erakunde juridiko horren legealdarazpenari ekin aurretik. Bertaratutakoek ere ohar egokiak egin zituzten gaiaren alde zehatz batzuei buruz. Bukatzeko, luncha egin

zen, eta, lunch horretan zehar ere, parte-hartzaileek iritziak trukatu zituzten elkarrekin.

2.- Uztailaren bukaeran, abisua luzatu zaie bazkideei, jakin dezaten udazkenean “Jardunaldiak” egingo direla egun interesgarriri diren gai batzuei buruz. Arian ere, jardunaldi horietatik aurrenekoa egingo da, urriaren 24an, akademiaren egoitzan, “Oinordekoa izendatzeko askatasunari buruzko jardunaldia” izenburuarekin, gure lehendakariorde den Andres Urrutia notario jaunaren zuzendaritzapean.

3.- Zuzendaritzako batzaren azken bileran, jarraikoa ageriarazi zen:

a) Zuzenbide publikoko atalak “Bigarren jardunaldia: Estatutuen eraldaketak eta Konstituzioaren eraldaketa” egin zuela azaroaren 9an, Ertzilla Hotelaren Pagasarri Aretoan.

b) Zuzenbide pribatuko atalak, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkuneko EHFZZ Ikertzeko Taldearekin batera, “Euskal Herriko Foru Zuzenbide zibilari buruzko bosgarren jardunaldi praktikoa” egin zuela azaroaren 10ean.

4.- Hasierako elkarrizketak izan dira, AVD-ZEAK Eusko Legebiltzararekin lankidetzara eragingarria izan dezan, 3/1992 Legea eguneratzeko helburuarekin.

5.- Zuzendaritzako batzak azken bileran aitortu du batza horren osatzea berriztatzea nahitaezkoa dela, hiru urte igaro baitira hura aukeratu zenetik. Hauteskuak hurrengo biltzar orokorarekin batera egingo dira, 2007. urteko otsailean gutxi gorabehera.

6.- Hurrengo hiruhilekoan, “*Clásicos de Derecho Vasco – Euskal Zuzenbidearen Klasikoak*” deituriko bildumaren barruan, 5 eta 6. zenbakiekin, berriro argitaratuko dira honako lan hauek: bateko, Carlos de la Plaza jaunaren “*Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya, dentro y fuera del Señorío de aquél nombre*”, gure lehendakariak, Adrian Celaya jaunak, horren sarrera egingo duela; eta,

besteko, Diego Angulo Laguna jaunaren “*Derecho Privado de Vizcaya*”, José María Arriola notario jaunak sarrera eta aurkezpena egingo dituela.

7.- Inprimategian dago Adrian Celaya jaunaren “*Así nació Bizkaia (de Arrigorriaga al fundador de Bilbao)*”; lan horrek BBK-ren laguntza jaso du.

8.- Bizkaiko Foru Aldundiak, aurretiaz hitzartutakoaren arabera, urteko diru-laguntzaren erdia helarazi digu. Laguntasun hori azpimarratzea egoki gertatzen da, gure helburuak erdiesteko nahitaezko eta ezinbestekoa baita.

Xabier Oleaga